

---

# Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa eta hizkuntza-politik(et)an akordioa(k)

---

**Bilbao Sarria, Paul**

Kontseilua  
pbilbao@kontseilua.eus

---

# E

---

Euskararen Etorbizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzea baldin bada azken helburua, garrantzitsua da, hizkuntzaren normalizazioari dagokionez, eraikitze-fase horretan sozialki eta politikoi nola eragingo dugun definitzea. Ekarpene honen bidez, Kontseiluak inoizko adostasun sozial handiena izan duen proposamen politikoa mahai gainean jarri nahi izan du, etorkizuneko hizkuntza-politika definitzeko tresna zehatz gisa. Halaber, bolo-bolo dabilen lankidetzaren testuinguruan, etorkizunari begira Euskalgintzaren, bestelako eragileen eta instituzioen arteko akordioak eraikitzeko prozedura baten proposamena ere aurkeztu nahi izan du.

**Giltza-hitzak:** Hizkuntza-eskubideak. Lankidetzaren. Normalizazioa. Akordioa. Politika. Euskalgintza.

Bat egiten dut Eusko Ikaskuntzak “Euskal Herriko lurralde(ar)en Liburu Berdea”ren sarreran jasotzen duen lehen esaldiarekin: “Orri zuri baten aurrean jartzea beti da erronka. Baina oraindik idatzita ez dagoena irudikatzea erronka zoragarria bihurtzen da modu kolektiboan gauzatzen bada”.

Halaxe da, bai, eta Kontseiluak zoragarritasun hori bizi izan zuen 2016ko abenduaren 17an, leporaino beteta zegoen Kursaal jauregian, urte eta erdiko prozesuaren ondoren Europako hogeita hamar hizkuntza gutxituen normalizazioaren alde diharduten ehunetik gora eragilerekin adostutako Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa aurkeztu zuenean.

Finean, komunitate desberdinetako eragileak orri zuri baten aurrean jarri genituen eta galdera zehatz bati erantzuteko eskatu genien, haien hizkuntza-eskubideak bermatzeko hartu beharreko neurriak zehaztea, balio zehatz batzuk ardatz hartuta: elkarbizitza, aniztasuna, berdintasuna eta eskubideak.

Urte luzea iraun zuen prozesu horrek emaitza ukigarria ekarri zuen: Inoiz hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hizkuntza-politiken inguruan egindako eztabaidarik handienaren ondorioz, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea ahalbidetuko duten neurrien zerrenda. Finean,

Protokoloaren azken produktu ukigarria horixe da, egoera gutxituan dauden hizkuntzetako hiztunen eskubideak zazpi eremutan (administrazioa, hezkuntza, hedabideak, teknologia berriak, onomastika, kultura eta eremu sozioekonomikoa) bermatzeko 185 neurri.

Desberdinen arteko sinergiak baliatu genituen geure orri zuria idazteko. Gainera, emaitza hainbat aldetatik blindatzeko, prozesuan maila desberdinetako eragileen partehartzea sustatu genuen. Batetik, arestian aipatutako hogeita hamar hizkuntza gutxituren normalizazioaren alde lan egiten duten eragileak; bigarrenik, Europan hainbat diziplinatan aditu diren hogeita norbanakoren aholkularitza akademikoa; eta hirugarrenik, eskubideen gaian ospe handia duten sei erakunderen gidaritza.

Horrelako ariketa erraldoi baten ostean Eusko Ikaskuntzak planteatzen zuen Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen (e5) prozesuaren berri izatean eta parte hartzen hastean, jarraian ikusi genuen biak arras uztargarriak zirela eta euskararen etorkizuneko eszenarioak elkarrekin eraikitzeke lagungarria izango zela Protokoloa.

Eusko Ikaskuntzak e5 planteatu zuenean, helburu nagusi gisa jarri zuen datozen hamarkadetarako euskalgintzaren aro berria konfiguratzeko laguntzea, edo hobeki zehaztuta, etorkizunerako amestutako eszenarioen konstelazioa irudikatu eta, ondoren, horretara iristeko bide-orriaren arkitektura lantzea.

Gure aldetik, zehar-lerrotasunetik zehaztasunerako jauzia egin dugu prozesuan. Horrela, ondoren azalduko dugun bezala, prozesuaren hasieran, eszenarioen konstelazioa modu orokorrean eraikitzen laguntzeko tresna bat mahai gaineratzeko aukera lehenetsi bagenuen ere, amaieran, tresna horretaz gain, 2040 urteari begira eraiki beharreko konstelazioan eragile aktibo zehatz baten proposamena ere egin dugu.

Une egokian dator Eusko Ikaskuntzak nazio mailan hasi duen gogoeta-prozesu integrala. Batetik, gure herriko etorkizunari begirako proposamenak jasoko dituelako; bigarrenik, gure gizartea nolakoa izatea nahi dugun definitzeko saioa egin duelako; hirugarrenik, egungo egitura sozio-politikoaren baitan etorkizuneko konponbideak eta erabakiak proposatuko dituelako; laugarrenik, eredu sozioekonomikoen inguruan azterketa zabal eta sakona egingo duelako; eta azkenik, euskararen etorkizuneko eszenarioak eraikitzen lagunduko duelako.

Ez dago ulertzerik etorkizuneko Euskal Herria euskararik gabe irudikatzea, edota hobeki esanda euskara ardatz ez duen Euskal Herria irudikatzea. Arrazoi horrengatik, Kontseiluaren izenean biziki eskertu nahi diot Eusko Ikaskuntzari prozesu erraldoi honetan parte hartzeko aukera eskaintzeagatik, eta ekarpen propositiboa aurkezteko gonbita egiteagatik.

## 1. Ekarpene propositibo transbertsala: *Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa*

e5 prozesuaren helburua izan da marko interpretatibo berria lantzea, euskaraz garatu nahi duen komunitatearen kapitalen analisisetan oinarrituta. Interesagarria da euskararen egoeraz haratago, euskaraz garatu nahi duen komunitateak dituen kapital eta aktiboetan jartzea fokua.

Argi dago eraldaketarako subjektu naturala komunitatea dela. Halaxe izan da geure hizkuntzaren garapen eta bilakaeran, eta halaxe izango da etorkizunean ere. Kontzeptu interesgarria, hain zuzen ere, Protokoloaren baitan jasotzen den guztiak komunitate(ar)i eragiten dielako, eta komunitatea(k) izan d(ir)elako subjektu naturala prozesu osoan.

Bestalde, gogoratu behar dugu e5 prozesuan ardatz izan diren kapitalak, hain zuzen ere, komunitateak bere garapenean etorkizuneko helburuak lortzeko sortu edo eskura dituen aktiboen multzoa.

Izan ere, kapitalen kontzeptua erabiliz, komunitatearen indarguneak zein diren jakinda diagnostikoa ezagutu ahal izan dugu. Horrela, kapitalen garrantzia azpimarratuz, gure komunitatearen diagnostikoari izaera baikorra eta eraldatzaileak atxikiko dizkiogu, eta kapital horiek lagungarriak izango dira etorkizunean irudikatu nahiko ditugun konstelazioak definitzeko eta zehazteko.

Printzipio horietatik abiatuta, egia ere bada Kontseiluan lehenetsi genuela kapital batean baino gehiagotan eragina izan zezakeen ekarpen propositiboa egitea. Halere, ohartuak ere baginen gure ekarpenak lotura zuzena izan beharko zuela Kapital batean eraiki beharreko konstelazioetan.

Horrela, Euskaraz Garatu nahi Duen Egungo Komunitatearen Egungo Aktiboen Maparen Eskema prestatzean, Kapital Politikoaren eremuko delphian lehenetsitako aktibo bat izan zen Protokoloa.

Kapital Politikoaeren barruan kokatzen da komunitateak boterea bereganatzeko edo bertan eragiteko gaitasuna. Horrela, Protokoloa agenda politikoan eragin eta proposamen politikoak mahai gaineratzeko tresna dela esan behar dugu. Proposamen zehatza da Protokoloa, 185 neurri zehatz biltzen ditu. Horrela, dokumentuaren eta prozesuaren gizarteratzeak aukera ezin hobea eskaintzen digu gizarte eragileok ahaldu eta hizkuntza-eskubideen gaia agenda politikoaren erdian kokatzeko.

Dena den, uste dugu Protokoloaren toki naturala hori bada ere, **beste kapitalekiko loturak** badituela, hain zuzen ere, eta ondoren zehaztuko dugun bezala, egitasmo batez baino, tresna batez ari garelako.

Esaterako, Protokoloak hizkuntza-eskubideen eta normalizazio-prozesuaren ezagutzan sakontzeko tresna dela ondorioztatzen dugu. **Giza Kapitalak** jendearen abileziak eta gaitasunak hartzen dituela kontuan ikusita, arras lotzen zaio Protokoloaren prozesuari. Izan ere, horixe izan zen, neurri handi batean, Protokoloa bera jorratzeko izan genuen elikagairik garrantzitsua. Finean, **Protokoloaren oinarria da gizarte eragilean ekarpenekin osatutako tresna** dela. Bete-betean egiten du, hortaz, Protokoloak Giza Kapitalaren ezaugarriekin.

Gauzak horrela, Protokoloa bi ikuspegitik izan daiteke interesgarri Giza Kapitalak aztertzean. Batetik, berau osatzeko prozesuan ehunka herritarren abileziak eta gaitasunak izan zituelako kontuan. Bestetik, azken produktua gure ezagutza handitzeko kanpo baliabidetzat hartzekoa delako.

**Kapital Sozialak** jendearen eta erakundearen arteko elkarrekintzak aztertzen dituela kontuan hartuta, Protokoloaren prozesuak berak **ehunka eragileren saretzea ahalbidetu** zuela esan dezakegu. Horrela, bi balio nagusi du dokumentuak. Batetik, euskal hizkuntza-komunitateko berrogeita hamalau eragileren elkarlanari euskal sindikalgintzako sei aktore nagusiak batu zaizkio berriki, eta beraz, bertan jasotzen den edukia elkarlanaren ondorio zuzena da. **Euskararen inguruan biltzen diren eragile nagusien arteko elkarrekintzaren emaitza** da Protokoloa, bai eta Protokoloaren Euskal Garapena ere. Horrexegatik, ekintzailetasunaren isla dela esan dezakegu. Bigarrenik, nazioarteko proiektzioa izan zuen prozesuaren ondorioa da eta, beraz, hogeita hamar hizkuntza baino gehiagoko 70 eragile saretzetik lortutako emaitza da.

Bestalde, **Kapital Kulturalak** jendeak mundua ezagutzeko modua islatzen du, bai eta taldearen barnean sustraitutako ohitura, ondare eta sinesmenak ere. Protokoloa produktu gisa **kohesio ideologiko-diskurtsiboa eta hizkuntza-eskubideen inguruko kosmobisioa eskuratzeko tresna** dela berretsi nahiko nuke. Finean, mundua ezagutzea ere zerbait poliedrikoa dela adierazi izan zaigu behin eta berriro, eta gure mundua edota etorkizuna eskubideen paradigmantik ere ikusteko beharra badagoela esango genuke, hain zuzen ere, egoera gutxituan dagoen hizkuntza-komunitate bateko kideak garen heinean.

Akaso, eta komunikazioaren atal honetan hori azpimarratu nahiko genuke, Protokoloa ez genuke kokatu beharko beste elementu baten gisa. Alegia, Protokoloaren potentzialitatea are eragingarriagoa da aktibo isolatu baino, beste aktiboetan eragiten duen elementu gisa.

Horrela, eta e5 hausnarketan presente izan dugun konstelazioen metafora hartuta, Protokoloa planeta baino, beste planetetan argia islatzen duen izarra litzateke.

Kapital Politikoa zehaztutako **aktibo horiek definitzen lagunduko** du Protokoloak. Inoizko berme sozial handiena duen proposamen politikoa izanik, Protokoloaren atalek Kapital Politikoa definitu ditugun aktiboaren edukiak zehazten lagunduko dute. Halere, bere eragin-ahalmena ez da horretara mugatuko. Beste kapitaletan, indar handiago edo txikiagorekin, erabilgarria izango den tresna da.

Hori izan da, hain zuzen ere, orain arte Kontseiluak egin izan duen ekarpena: Protokoloa beste Kapitaleko edukia zehazteko tresna izatea.

## 2. Ekarpeneko proposatutako zehatza: euskal herriko hizkuntza-politik(et)an akordioa(k)

Ekarpeneko proposatutako zehatza, eta 2040 urteari begirako konstelazioak eraikitze bidea egiten ari garela, interesgarria irudituko zaigu **ekarpen proposatutako zehatza** (eta neurri batean integrala) egitea.

Arestian esan bezala, Kapital Politikoaeren barruan kokatu behar da komunitateak boterea bereganatzeko edo bertan eragiteko gaitasuna eta agendan eragin eta inposatzeko boterea. Horretarako, Protokoloa tresna baliagarria dela adierazi dugu,

baina uste dugu zehaztu behar dela eragite horri begira zer-nolako ekinbide nagusi planteatu beharko genukeen.

Egia esan, urte osoko jarduna eta gero, oso garrantzitsua iruditzen zaigu **Eusko Ikaskuntzaren prozesuak emandakoa ardatz** izatea une oro Konstelazioa eraikitzeari begirako ekinbide-gakoa zehazteko eta proposatzeko. Izan ere, Euskalgintzaren, instituzioetako arduradunen eta beste eragileetako ordezkarien ekarpenetatik eraikitako proposamena jorratu nahi izan dugu. Horrela, aldeztu eragile desberdinek **adostutako elementuen gainean proposamena eraikitzeak** arrakastarako aukera erreala eskaintzen dituelakoan gaude.

Izenburuan azaldu bezala **Euskal Herriko hizkuntza-politik(et)an akordioa(k)** da guk etorkizunari begira proposatzen dugun ekinbide-gakoa. Horren oinarria, prozedura eta urratsak ondoren aletuko baditugu ere, sarrera honetan lehen hurbilpena egin nahiko genuke:

- **Euskal Herriko** → **Herri gisa** pentsatzeko garaia iritsi da. Egia da, bai, hainbat eragileok, Euskalgintzan, esaterako, Euskal Herri mailan pentsatu eta lan egiten dugula. Halere, bada garaia jauzi kolektiboa egiteko eta modu orokortu batean jarduteko. Eusko Ikaskuntzako hausnarketak ere aukera eskaini digu herri mailan pentsatzeko.
- **Hizkuntza-politika(k)** → Hizkuntzaren normalizazio-prozesua erdiesteko **hizkuntza-politika egokia beharrezkoa** da. Halere, bi zehaztapen egin nahi dugu. Batetik, hizkuntza-politikaz ari garenean ikuspegi integralaz ari gara. Horrek esan nahi du ez diogula bakarrik erreparatu behar instituzioek edo botere publikoek egin beharrekoari. Aitzitik, ondoren azalduko dugun bezala hizkuntza-politikaren ikuspegi soziopolitikoaz arituko gara. Bestetik, hautazko plurala jarri diogu, sortu nahi diren dinamikak esparrukakoak (hezkuntza, kultura, sozioekonomia) edo lurralde/instituzioak izan daitezkeelako (udalak...)
- **Akordioa(k)** → Eusko Ikaskuntzaren prozesuan behin eta berriz agertu dira lankidetzak, adostasuna, bateratzailea... bezalako hitzak. **Desadostasunetatik eta adostasunetatik akordioa(k)** eraikitzeak aukerak daudela uste dugu. Are gehiago, akordioen subjektuak ere desberdinak izan daitezke: akordio sozialak, akordio politikoak...

Zalantzarik gabe, akordio soziopolitikoak izango da azken xedea, baina eraikitze-prozesuan bestelako akordioak ez dira baztertu behar. Aitzitik, horiek lehenetsiko ditugu. Ondorioz, instituzio mailako, eragile mailako zein esparru mailako akordioak osatzea izango dugu lehentasun.

Zalantzarik gabe, anbizio handiko ekinbide-gakoa mahai gaineratu dugu, baina handira jokatzeko garaia dela iruditzen zaigu. Gainera, ondoren azalduko dugun ezaugarritzea kontuan hartuta, ekinbide gako honen azken helburura iristen ez bagara ere, aukerak zabalduko dira beste maila edo esparrukako akordioak ehuntzeko.

## 2.1. e5 prozesuak eskaintako gakoak

Ondoren, e5 prozesuaren baitan egon diren mintegietan **Kapital Politikoan agertu diren elementu garrantzitsuenak** bildu nahi izan ditugu; lehen esan bezala, gure **proposamenaren oinarria eta ardatza** prozesuan jasotakoa izan delako.

Hausnarketari egin genionean eta Kapital Politikoaren atalean **delphian lehenetsitako aktiboak** zehaztean honako zerrenda hau egin genuen:

- Erakundeetan euskara planak maila anitzetan
- Salbuespenak salbuespen, gero eta zailagoa da botere publikoa eskuratzea, euskararen kontrako jarrera esplizitu batetik
- Jarrera aldekoak dira herritarrengan eta horiek bozkatzeko dute gero
- Erakunde publikoetan inoizko indarrak handiera
- Euskararen erabilera diskurtso berriaren muila
- Euskararen ofizialtasuna (hala dagoenetan)
- Hizkuntza-politika maila akademikoan
- Nafarroan azken aldian euskararen normalizazioa helburu duen hizkuntza politika adostu da
- Euskararen legea. Bestelako lege eta arauak
- Euskalgintzaren eta erakundeen arteko harremanen normalizaziorako bidea
- Elkarrekin lan egiteko gogoeta erabakia erakundeen aldetik
- Hizkuntza-politikaren ekimenak bateratzen ari dira
- Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa
- Hizkuntza politiken babes sozial altua
- Euskararen lurraldean batera aritzeko aukera dago
- Etorkizunean erakundeetan aginduko dutenak euskaldunak izango dira

Aktibo horiek nolabait **sailkatu** behar izatekotan, honako multzo hauetan bilduko genituzke:

- Marko juridikoa
- Euskal Herri mailan aritzeko aukera
- Lankidetzaren soziopolitikoak
- Herritarren jarrera
- Hizkuntza-politika
- Diskurtsoa

Egia esan, lehen ariketa egitean gure ustez oso argi **aurreikusten zen non kokatzen** genituen partaideok **lehentasunak**: lurraldetasuna, hizkuntza-politika, diskurtsoak eta jarrerak; hain zuzen ere, euskararen normalizaziorako gakoetan.

Bigarren urratsean 2040. urtean **Kapital Politikoak eduki behar dituen aktibo nagusiak** identifikatu genituen, eta bost aktiboko konstelazio bat eta beste zenbait planeta zehaztu ziren:

- Protokoloa
- Lankidetzaren Publiko Soziala
- Hitzun komunitatea → euskara erakundeetan → corpora
- Akordio Politikoa

Lehen esan bezala, Protokoloaren aktiboa albo batera utziko dugu, tresna kontsideratzen dugulako eta proposatzen ari garen **Euskal Herriko hizkuntza-politik(et)an akordioa(k)** ekinbide-gakoa jorrazteko oinarria izango delako.

Bigarren ariketa honetan egia da, bai, subjektuek garrantzia hartu zutela, eta horien bueltan artikulatu ziren aktiboak. Halere, subjektu horien zerrendatzeaz haratago, **subjektuen arteko loturez** jardun genuen: lankidetzaren publiko soziala, koordinazio nazionala, administrazio komuna, euskararen lurralde osorako politikak...

Zinez uste dugu e5 mintegietan egindako bi saio horiek argi erakutsi zutela zein parametrotan kokatu behar genuen proposamena.

Jarraian, aktibo horiek kontuan hartuta, hirugarren mintegian **Kapital Politikoaren balizko ekinbide-gakoen proposamena** egin genuen:

- Ulermena bermatzea
- Ahozko-tasunaren lanketa
- Euskara eroso eta gustura erabiliko duten hitzunen funtzionalak sortzea

- Gure komunitatera etortzen ez diren pertsona ez euskaldunak, lehenik eta behin, euskara ikastera bideratzea
- Lege Markoa egokitzea egungo egoerara
- Euskararen Legearen jarraipenarekin jarraitzea
- Marko juridiko egokia eratzea
- Euskal Herrian euskararen beharrezkotasuna legeztatzea
- Hizkuntza eskubideak gizartearen zentzu komunean txertatzea
- Euskal komunitatea trinkotzea, ahalduntzea
- Aktibazioa, prestigioa eta eredu-garritasuna bultzatzea
- Euskara transbertsala
- Lurraldeetako administrazioen akordio politikoa blindatu eta "betikotu"
- Politika bateratuak euskararen lurralde osorako
- Nafarroako Foru Komunitateko, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Iparraldeko euskaldunen arteko ezagutza / hartu emana / adiskidetasuna sendotzea
- Estatu propioa
- Euskararen akordio nazionala
- Lan mundua euskalduntzea
- Hizkuntza normal batek dituen baliabide linguistiko-teknologikoak garatzea; beste hizkuntza europarren ligan jokatzeko

Oraingoan ere, izaera desberdinetako ekinbide-gakoa izan arren, **bost multzo nagusitan** sailka litezkeela ondorioztatzen genuen:

- Hizkuntza-gaitasuna
- Marko Juridikoa
- Hizkuntza-komunitatean eragitea
- Hizkuntza-politika Nazional eta Bateratua
- Bestelakoak

Hori horrela izanik ere, zalantzarik ez dugu azken ariketa honetan egindako proposamenei bidea ematen dutela 2040 urte bitartean eraiki beharreko konstelazio berri horretan **Euskal Herriko hizkuntza-politik(et)an akordioa(k)** ekinbide-gakoa lehentasunezkoa izateko.

Gainera, iruditzen zaigu proposatzen dugun ekinbide-gakoa honek baduela zuzeneko harremana beste Kapital-etako hainbat ekinbide-gakorekin:

**Kapital Ekonomikoa:**

- Zerbitzu-prestazioetan hizkuntza-irizpideak
- Oinarriko zerbitzuen karta
- Inguru digitala...

#### Kapital Kulturala:

- Eskubide soziala
- Arnasguneak
- Balio partekatua...

#### Azpiegitura Kapitala:

- Goi zein maila ertaineko ikasketen euskalduntzea
- Euskarazko hedabideen unibertsoa indartu
- Hizkuntzen erabileraren kuotak hedabideei ezarri...

#### Kapital Soziala:

- Plan orokortua diseinatu eta garatu
- Arloz arlokako plan sektorialak
- Kultur sorkuntza sustatu eta garatu
- Euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa...

#### Giza Kapitala:

- Hizkuntza-irizpideak lanpostuetan
- Lan-jarduna eta lan-harremanak naturaltasunez euskaraz garatu
- Herritarrek euskara jakiteko eskubidea oinarritzko eskubide demokratikoa berme juridikoa eta soziala;
- Lan-esparru guztietan, normalizazio-plan eraginkorrak prestatu...

## 2.2. Antolaketa

Aurretik azaldu bezala, proposatzen ari garen ekinbide-gakoak badu nolabaiteko **konplexutasuna**, baina konplexutasun horrek lagunduko du arrakasta osoa lortzen ez bada ere, arrakasta eta sinergia partzialak erdiesteko.

Definizioz, **hizkuntza-politika** euskararen normalizazioaren alde **hartzen diren erabakien eta esleitzen diren baliabideen multzoek** osatzen dute. Azpimarratzekoa da, hala ere, kasu guztietan presente dagoen politika dela, euskararen alde egiten denean eta egiten ez denean ere. Horrekin esan nahi dugu, euskararen aldeko neurriak ez hartzea ere hizkuntza-politika dela, bai eta gainerako politiketan hizkuntza-irizpideak ez hartzea ere. Hortaz, ez dago jarrera neutrorik, kasu guzti-guztietan bada hizkuntza-politika oso gutxi baitira pertsonen artean hizkuntza erabili gabe burutzen diren ekintzak.

Definizio hori ardatz izan badugu ere; horretaz gain, geuk **hizkuntza-politikari dimentsio soziopolitikoa** esleitu nahi izan diogu. Hizkuntza-politikaren dimentsio politikoa gaur egungo ikuspegi tradizionala litzateke. Dimentsio sozialak,

aldiz, bi adar izango lituzke. Batetik, hizkuntza-politikaren eremuan hartzen diren erabakietan Euskalgintzaren partehartzea; bestetik, hizkuntza-politikaren inplementazioari begira Euskalgintzak gizartean alde aurretik egin dezakeen lana. Horrek, beraz, **harreman-eredu berriak sortzea eskatuko luke Euskalgintzaren eta instituzioen artean.**

Gauzak horrela, gure lehen urratsa ekinbide-gako honetako planoak zerrendatu eta zehaztea izango da.

### 2.2.1. Eremuaren plano

Hizkuntza-politikak bizitzako alde guztietan eragiten digu. Gure azken helburua Euskal Herriko hizkuntza-politikan akordio soziopolitikoa lortzea bada ere, normalizazio orokorrari begirako akordio horretara irits gaitezke eremukako akordioen bidez.

Horrexegatik, hizkuntza-politikaren baitan aurreikusten dugun edozein akordioaren bila goazenean, zehaztu beharko dugu zein eremutan kokatu nahi dugun. Sistema bateratua erabil dezagun, Protokoloak bereizi dituen zazpi eremuak izatea proposatzen dugu:

- Printzipioak
- Administrazio publikoak
- Kultura
- Hedabideak eta teknologia berriak
- Onomastika
- Eremu sozioekonomikoa
- Hezkuntza

Zalantzarik gabe, hasiera-hasieratik, eremu horietan, osotasunean, akordioak jorratzea zaila izan daitekeenez, mikro-akordioak garatzerik ere badago. Hartara, eremu bakoitzaren azpian egon daitezke atalak ere zehaztea izango dugu eginkizun.

Esatera baterako, teknologia berrien eremuan edo aisialdiaren eremuan hizkuntza-politikari begirako akordioa osatzeko aukerak egonez gero, azpierreu horretako akordioak lortzeko bidean jarri behar dugu.

### 2.2.2. Lurraldearen plano

e5 prozesuan zehar, bai aktiboen zerrendatzea, bai eta eragile aktiboenetan ere, askotan errepikatu da nazio mailako hizkuntza-politikaren kontzeptua. Geuk egiten dugun

proposamenaren azken emaitza izan beharko lukeen akordioa Euskal Herri mailakoa izango da. Halere, eta eremuen planoan bezalaxe, nazio mailakoak ez beste mailako akordioak ere bidera litezke: udal mailan, eskualde mailan, lurralde mailan, lurraldeen artekoa, autonomia erkidego mailan etab.

Gainera, Kontseiluaren jardunean askotan ikusi izan dugu udalerrri mailan erraztasun handiagoak izaten direla hizkuntza-politikari buruzko akordioak erdiesteko, edota, udalerrri batean lortutakoa beste udalerrri batzuetara zabaltzeko. Hartara, horrek behetik gorako dinamika sortzeko aukera eskaintzen digu.

### 2.2.3. Eragile-motaren planoan

Hizkuntzaren normalizazioari lotzen gatazkezian, tradizioz bi eragile nagusi izan dira subjektuak. Batetik, eragile instituzional edo botere publikoak, haiek hartzen dituztelako erabakiak eta neurriak, eta, bestetik, Euskalgintza, bera izan delako motore eta akuilu euskararen normalizazio-prozesuan, bai eta hiztun, tresna eta espazio sortzailea ere.

Zalantzarik gabe bi eragile horiek garrantzi berezia hartuko dute proposatzen ari garen eragile aktiboaren garapenean, baina hasi behar dugu beste mota batzuetako eragileak ere euskararen normalizazio-prozesuan agente edo subjektu bihurtzen. Finean, askotan esan izan dugu eragiteari begira Euskalgintzak baduela nolabaiteko muga eremu zehatz batzuetara iristeko, eta gainera normalizazioan eta eskubideen bermean ardura-maila desberdinak daudela irudikatu behar da.

Lehen hurbilpen gisa, Euskalgintzaz, eragile politikoez, instituzionalez, eragile sindikalez eta bestelako gizarte-eragileez ari garela esan genezake. Halere, eremukako akordioek beste eragile batzuekin harreman-bideak zabaldu beharra erakutsiko digute.

Gauzak horrela, hiru planoetako elementuak uztartuz **Euskal Herriko hizkuntza-politik(et)an akordioa(k)** jorratzen hastea da proposatzen dugun ekinbide-gakoa:

Akordio horiek beti izango dute eremuren batekin harremana, eta beraz, pixkanaka, esaterako, hezkuntza eremurako akordio orokorra eraikiz joango gara. Eremuz eremukako lanketa horrek, azkenean, **Euskal Herriko hizkuntza-politikan akordioa** delakora eraman beharko gaitu.

Azken hamarkadetako historiak erakutsi digu azken helburuari bakarrik begiratuz gero, prozesua ahaztu egiten dugula. Hau da, balizko **D** egunean Euskal Herriko hizkuntza-politikaren akordioa erdietsiko dela eta hortik aurrera beste fase batean izango garela.

Gure ustez bi elementu izan behar dugu kontuan. Batetik, **hizkuntzaren normalizazioa prozesu bat da** eta, beraz, eguneroko gertaerek, portaerek, erabakiek... eragina dute bere garapenean. Hortaz, **ezin gara egun zehatz batean sinatuko dugun zerbaiten esperoan egon**; eta, ondorioz, **gaurdanik hasi behar dugu** hizkuntzaren normalizazioan jauziak eragingo dituzten akordio zehatzak jorratzen eta aplikatzen.

### 2.3. Edukia

Urratsak nola eman behar diren ikusita, akordio horien edukien inguruko hausnarketa egitea dagokigu. Eta, horretarako, badugu **lanean hasteko proposamena**: Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko **Protokoloaren Euskal Herriko Garapena**; Protokoloa euskararen betaurrekoetatik ulertzeko tresna.

Urte eta erdiko prozesu parte hartzaile baten bidez, hasierako sinatzaileekin eta beste hainbat bide-lagun berriekin (Euskal Herriko gehiengo sindikala barne) jorratu genuen euskarara egokitzeko lanketa hori.

Bigarren ariketa horretan, Protokoloa neurritz neurri aztertu eta aipatu neurriok zein motatakoak ziren ondorioztatzeaz gain (korpusari, plangintzari, baliabideei edo sustapenari dagozkien), neurriak betetzeko balizko urratsak ere definitu ziren. Ondorioz, gizarte eragileok **gai izan** ginen euskaldunon hizkuntza-eskubideak bermatzeari begira **egin beharreko urratsak edo aldaketak zehazteko**.

Gainera, **lanketa hori** Protokoloak zehaztu dituen **eremuka** eta azpi-eremuka jorratu genuen: administrazio orokorra, hedabideak, kultura, hezkuntza, onomastika eta eremu soziokonomikoa.

Gauzak horrela, (azpi) eremu desberdinetako hizkuntza-politikarako akordioak jorratzen hasteko eduki-oinarria badugu; adostasun sozial ikaragarria duen proposamena.

## 2.4. Garapena

Zalantzarik gabe, akordioen **dinamika konplexua** da, baina hasieratik bertatik **lorgarriak** diren akordioekin hasi behar dugu. Gauzak horrela, azken urtean Protokoloaren Euskal Herriko Garapenaren prozesuan eremu bakoitzean dauden lehentasunak identifikatzeko aukera egon da. Alegia, (azpi)eremu bakoitzean akordioen edukiak zehazteko adina elementu dagoela esan dezakegu.

Egia da, **Kontseiluan**, azken hilabeteotan horrelako **dinamiken garrantziaz hausnartu** dugula, iruditzen zaigulako bide horrek **aukerak zabalduko** dituela eragile desberdinen (euskalgintzakoak, sozialak, sindikalak, instituzionalak) lankidetzako marko zehatzak definitzeko eta aurrera eramateko.

Are gehiago, eremu batzuetan **urrats zehatzak egin daitezkeela iruditzen zaigu**, besteak beste, **hezkuntzaren eremuan, teknologia berrien eremua, hedabideen eremuan...** Euskalgintzako eragileok eta beste eremu batzuetako eragileok **gai izan gara** eremu horietako hizkuntza-politikan **lehentasunak definitzeko**, bai eta gure ekarpen praktikoa zehazteko ere. Kasu horietan, beraz, **hurrengo urratsa** akordio horiek **eragile instituzionalera hedatzea** izango da, eremu horietako hizkuntza-politikan jautzia egiteko.

Eremu desberdinetan lortu diren akordioez harago, badira, esaterako, maila instituzionalean lortutakoak, besteak beste, hizkuntza-politikaren kudeaketa ardura duten Euskal Herri osoko instituzioek lortutakoak, edota instituzioak eta Euskalgintzako zein bestelako eragileak esploratzen ari garen eremuak, esaterako, lan-mundua euskalduntzeko plangintza estrategikoa edo arnasguneen garapena.

Lan-molde berri baten atarian gaudela esan daiteke, baina hau guztia ordenatu beharra ikusten dugu, eta horrexegatik iruditzen zaigu e5 hausnarketako lehentasunezko eragile-aktibo izan behar dela **Euskal Herriko hizkuntza-politik(et)an akordioa(k)** delakoa.

## 3. Geroa Elkar-Ekin eraiki dezagun

Hasieran esan dut bat egiten dudala Eusko Ikaskuntzak Euskal Herriko lurralde(ar)en liburu berdearen sarreran jasotzen duen lehen esaldiarekin: *Orri zuri baten aurrean jartzea beti da erronka. Baina oraindik*

*idatzita ez dagoena irudikatzea erronka zoragarria bihurtzen da modu kolektiboan gauzatzen bada.*

Azken hitzetan esan behar dut Eusko Ikaskuntzaren XVIII. **Kongresuaren izenburua** arras baliagarria zaidala ekarpen hau amaitzeko.

Euskararen Etorbizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzeko lan honetan **ekarpen berritzailea** egin nahi izan dugu. Berritzailea, baina azken urtean egin dugun **hausnarketan atera diren elementuak kontuan hartuta.**

2017ko azaroaren 16an Kontseiluak euskararen normalizazio-egoeraren urteko azterketa egin zuen estreinakoz Donostian. Urte osoaren azterketa egin zuen normalizazioaren eragiten duten lau zutabeak ardatz: corpus juridikoa, plangintzak, baliabideak eta herri gogoa.

Aipatu irakurketan 2018ko aurreikuspenak ere egin zituen Kontseiluak. Hartara, ondorio nagusietako bat izan zen hizkuntza-normalizazioaren **hanka sozialak bultzada ikaragarria** izango zuela. Eta zalantzarik ez dugu 2018an **Euskaraldiak** horixe ekarri(ko) duela.

Horretaz gain, 2017an publiko egin ziren inkestek eta neurketak normalizazio-prozesuaren bilakaeraren elementu argigarriak jartzen zituztela adierazi genuen. Horrexegatik guztiagatik, hizkuntza-politikan sakoneko berrikuspena egin beharra ikusi genuen. **“Hizkuntza-politikak birpentsatu behar ditugu”** adierazi genuen.

Eta, horrela pentsatzen jarraitzen dugu. Horrela, bide horretan bada garaia administrazioko sail eta maila guztietan eraginez, benetako zeharkakotasunez garatuko diren hizkuntza-politikak abiatzeko Euskal Herri osoan, bada garaian instituzioen eta euskalgintzako eragileen arteko konplizitatez eraikiko den eta hizkuntza-eskubideen bermea ardatz izango duen hizkuntza-politika abian jartzeko.

Eusko Ikaskuntzaren hausnarketan zehar ere orduan atera ziren hainbat elementu berretsi dira, eta horrexegatik gure ekarpen propositiboan Euskal Herriko hizkuntza-politik(et)an akordioa(k) delakoa izan da.

2040. urteari begira eraiki beharreko Konstelazioan lehentasunezko ekinbide-gakoa dela iruditzeaz gain, **aurrera eramateko aukera errealak** daudela iruditzen zaigu. Ikusi dugu azken urtean, normalizazio-prozesuaren **hanka soziala**



---

sendotzeko Euskaraldiaren dinamikaren inguruan euskaingintzaren eta instituzioen artean sortutako sinergia zer nolako eragina izaten ari den eta zer-nolako potentzialitate izan dezakeen.

Eraman ditzagun orain sinergia horiek **Euskal Herriko hizkuntza-politik(et)an akordioa(k)** ekinbide-gakora. Horrek **harreman-eredu berriak** sorrarazi beharko ditu Euskaingintzaren eta instituzioen artean. Hartara, hor ere birpentsatze-ariketa egin beharko dugu, arestian esan bezala hizkuntza-politikaren ikuspegi soziopolitikoak jorratzeko. Zalantzarik gabe, horrek **geroa elkarrekin eraikitzen** eramango gaitu.